

## Hautzaroan kontrako esperientzien efektuak ez dira itzulezinak.

Esperientzia goiztiarrak gogorrek izan arren, pertsonak ez dira horietan harrapatuak gelditzen. Amaiera ez da bakarrik gertatutakoaren arabera, baita ondorengo gertaeren arabera ere. Horregatik, itxuraz egoera berdinak bizi dituzten pertsonen artean aniztasun handia dago.

Sexu-abusuak pairatu dituzten pertsona guztiek ez dute tratamendua behar izaten, baina guztiek laguntza behar dute, babesik gabe haurrak edo nerabeak egoera hori denbora luzeagoan bizitzen duen neurrian, kaltea ziurragoa izango baita. Beraz, oso garrantzitsua da egoera ahalik eta azkarrenen hautematea eta jarduten hastea.

## Hautzaroan edo nerabezaroan sexu-abusua pairatu duen pertsonak gaindi dezake.

Abusuak jasan dituen pertsona beti errekuera daiteke. Nahiz eta bizitako esperientzia oso gogorra izan, pertsonak gainditzeko gaitasun handia dugu. Bizia horrela ez dela ikas dezakegu, gauza ederrez bete dagoela eta horientatik bizitzeak pena merezi duela.

Sexu-abusuak jasan dituzten pertsonak beren errekuera beren sinetsi behar dute eta beren inguruan gaudenek transmititutakoaren arabera izaten da.



Federazioaren erakunde kideak:

Asociación Catalana para la Infancia Maltratada (ACIM).

Asociación Andaluza para la Defensa de la Infancia y Prevención del Maltrato Infantil (ADIMA).

Asociación Madrileña para la Prevención del Maltrato Infantil (APIMM).

Asociación Pro-Infancia de Navarra (APROPON).

Asociación Murciana de Apoyo a la Infancia Maltratada (AMAIM).

Asociación Asturiana para la Atención y el Cuidado a la Infancia (ASACI).

Asociación Vasca para la Ayuda a la Infancia Maltratada (AVAIM).

Centro de Asistencia a Víctimas de Agresión Sexual y Prevención del Maltrato Infantil (CAVAS).

Asociación Castellano-leonesa para la Defensa de a Infancia y la Juventud (REA).



Laguntzailea:



ZUREKIN NAGO EGIN BERBA KONTA  
EZAZU EZ ITXARON GEHIAGO EZ IZAN  
BELDURRIK ESAN EZ ZAUDE BAKARRIK  
EZ ITXARON HIL ARTE EZ ZAUDE  
BAKARRIK EGIN GARRASI EGIN BERBA  
ORAIN ESAN EZ ITXARON JOAN ARTE  
EGIN EZ JASAN GEHIAGO EZ IZAN  
BELDURRIK ESAN ORAIN EZ ZAUDE  
BAKARRIK EZ ITXARON ASPERTZEA EZ  
ZAUDE BAKARRIK NIK SINISTEN DIZUT  
ORAIN UNEA IRITSI DA EGIN BERBA EZ  
ITXARON AMAITZERA ARTE EZ IZAN  
BELDURRIK EZ ITXARON NORBAIT  
OHARTARAZI ARTE NI ZURE ONDOAN  
NAGO KONTATU EGIN GARRASI EZ  
ITXARON GEHIAGO ESAN NAHIKOA  
DA NIK ENTZUTEN DIZUT ORAIN ESAN  
EGIN DEZAKEZU EZ IZAN BELDURRIK EZ  
ZAUDE BAKARRIK EGIN BERBA EZ  
ZAUDE BAKARRIK GUK SINISTEN  
DIZUGU EGIN DEZAKEZU GUK  
ENTZUTEN DIZUGU GU ZUREKIN  
GAUDE EGIN BERBA ORAIN UNEA  
IRITSI DA EZ ITXARON GEHIAGO 2011

## HAURREN SEXU-ABUSUA: JAKIN BEHAR DUGUNA

HAURRENGAN ETA NERABEENGAN  
TRATU TXARRAK PREBENITZEKO  
V ESTATUKO KANPAINA

## ZER DA HAURREKIKO SEXU ABUSUA?

*National Center of Child Abuse and Neglect* erakundearen definizioak erreferentziatzen hartuta eta "Haurrekiko Tratua: kasuak hauteman, jakinarazi eta erregistratzea" dokumentua, 2006. urtean Haurren Behatokiak argitaratua, ikusirik, haurrekiko sexu-abusuan honakoak sartzen dira:

Haurren eta helduen arteko kontaktu eta elkarrekintzak, helduak (erasotzailea) haurra bere burua, haurra bera edo beste pertsona bat sexuaren ikuspegitik estimulatzeko erabiltzen duenean.

Gerta daitekeen moduari buruz, kontaktu fisikoa dutenak (bortxaketa, intzestua, pornografia, haurren prostituzioa, sodomia, zirriak egitea, sexu-estimulazioa...) eta ez dutenak (haurrari eskaera nazkagarria edo ahozko lilura esplizitua, haurraren aurrean larrua jotzea edo masturbatzea, haurrari sexu-organoak erakustea, haur-prostituzioa sustatzea, pornografia...) bereizten dira.

Halaber, 18 urtetik beherakoak sexu-abusua egin dezake, haurra baino askoz handiagoa denean. Era berean, abusua sortzen da ere, erasotzen duenak haurrekiko edo nerabearekiko kontrola edo agintea duenean.

### Zer dakigu Haurrekiko Sexu Abusuari buruz?

Sexu-abusuak edozein gizarte-klasetan, tokitan, unetan eta adinetan gerta litezke.

Bai mutilek, bai neskek sexu-abusuak paira ditzakete. Nesken eragina handiagoa izan arren, kasuen proportzio garrantzitsuak mutilengan eragiten du.

Neska-mutilek ez dute inoiz gezurrik esaten, sexu-abusuak jasan dituztela aipatzen dutenean.

Erasotzaileak ez dira "ezezagunak" izaten. Abusatzen duten gehienak senitartekoak edo ezagunak dira. Ezezagunen proportzioa askoz txikiagoa da halako kasuetan.

Erasotzaileak ez dira "gaixo mentalak" edo "agure gordinak". Sexu-abusu gehienak pertsona "arruntek" egiten dituzte, gizarte-balore zehatzetan defizitak izan arren. Gainera, beren bultzadak kontrolatzeko zailtasunak dituzte.

Baliteke abusuak gure ingurunean gertatzen badira, erraz ez ohartaraztea. Pairatzen duten pertsonak ezkutatzeko joera dute, lotsarengatik edo beldurrengatik. Beraz, batzuetan egoera urteetan zehar errepikatzen da.

Sexu-abusuak ez doaz beti indarkeria fisikoari lotuak. Abusuak egiten dituenak, besteak beste, honako taktikak erabiltzen ditu: limurtzea, xantaia, opariak edo iruzurra. Maiz haurrarekin isilpeko itunen bat egiten du, gertatzen ari dena ez kontatzeko eta norbaitek jakiten badu berarekin haserretuko dela esaten dio

## ZER EGUIN DEZAKEZU SEXU-ABUSUAREN KASUAN?

**Abusuaren jakinarazpena jasotzeko ez atzeratu unea.** Aprobetxatu haurrak aukeratu duen unea entzuteko. Saiatu zuregan konfiantza izaten eta entzun iezaiozu.

**Sinetsi eta ez jarri zalantzan kontakizunaren egiazkotasuna.** Abusua kontatzen dutenean, normalean, haurrek ez dute gezurrik esaten. Lehenengo kontakizuna baliteke oso zehatza eta sinesgarria ez izatea, zigortu edo beraiekin haserretuko al zaren haztatzen baitute.

**Oso garrantzitsua da maiz esan eta gogoraraztea abusua beren errua ez dela.** Utzi argi errudun bakarri abusuak egin dituen heldua dela. Erabili honen moduko esaldiak: "zuk ez duzu ezer txarrik egin; ez da zure errua", "saihestezina izan da" edo "erasotzaileak egokia ez zen zerbait egiten ari zela bazekien".

**Hitz egin gertatutakoaz eta abusatzaileari buruz eta aipatu azkenekoak laguntza behar duela.** Ez esan pertsona maltzurra denik, abusatzen duena senitartekoa denean, umeak kontrako sentimenduak izango baititu eta, aldi berean, pertsonarekiko maitasuna izango baitu. Halako esaldiak erabil ditzakezu: "zerbait txarra egin du, baina berriz ez egiteko laguntza behar du".

**Azaldu harro esaten ausartu delako. Esan ez zaudela haserre.**

**Esan aurrera aterako dela eta gauzek aldatuko dutela.**

**Adierazi afektua. Segurua eta maitatua sentitu behar du, bereziki, halako egoera traumatikoa jasan duenean.**

**Azaldu laguntza bilatzen saiatuko zarela. Hemendik aurrera, zaindu haurra erasotzailetik urrundua egotea abusu gehiagorik ez izateko.**

### Europan 5 umetatik batek sexu-indarkeria pairatzen du.

Europako Kontseilua, *One in Five* kanpaina, 2010.

[http://www.coe.int/t/dg3/children/1in5/default\\_en.asp](http://www.coe.int/t/dg3/children/1in5/default_en.asp)

## ZER EZ DUZU EGIN BEHAR?

**Ez egin abusuaren errudun.** Haurrak edo nerabeak ez dira arduradunak. Haurrek saihesten ikas dezakete, baina, normalean, gertatzen zaienean, ustekabez harrapatzen die, engainatu eta mehatxatu egiten diete eta ez dakite behar bezala erreakzionatzen.

**Ez ezeztatu abusua gertatu dela.** Ez esan halako esaldirik: "ziur al zaudete?" "Ez da egina, gaizki-ulertua izango da", "Ez asmatu istorio horiek".

**Ez azaldu alarma, tristezia edo angustia haurraren edota erasotzailearen egoerarengatik.** Baliteke zure tristezia eta ondoezaren arduradun sentitzea.

**Ez tratatu haurra une horretatik aurrera modu diferentean.** Jarraitu ukitzen, besarkatzen, laztantzen eta musuak ematen. Dena den, esan uneren batean ez egitea nahi badu, lasai eskatzea. Ezet esateko aukera izan beha du, berak erabaki behar baitu bere gorputzari buruz eta argi utzi iezaiozu erabaki hori errespetatuko duzula.

**Ez gaindiz babestu.** Ohikoak baino nahiera gehiago ez utzi, ez eman opari berezirik "ordain" bezala eta ez salbuetsi bere erantzukizunez. Zure adeitasun eta babesa behar dute, baina abusua gertatu behar ez den zerbait dela ulertu behar dute; ildo horri jarraiki, horretatik ezin daiteke

Laguntza behar izanez gero...

**HAURRAK LAGUNTZERO  
EUROPAKO TELEFONOA**

**116 111**